

Nafarroako Esaera Zaharrak. Aburregaina, Aburrepea, Aria.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Abaurregaina, Abaurrepea, Aria.

- 2338 *Arre ta so! orrek ez dik deusik a(d)itzen.*
- 2339 *Bakoitzek bere sandua alaba (tzen).*
Saltzaleak ere bere gauzak; aiek bezalakorik ez da iñon.
- 2340 *Bazkoa goizik, martxoan balitz.*
Garizuma beti negu.
- 2341 *Bein ere ez dena, izaten al da.*
Lenago izan ez diren gauza asko sortzen ari dire gure egun auetan.
- 2342 *Biar (bear) ez duen potroak, bi almote olo.*
Goseak eta bearrean dagonari ez eman, ta naikoa duenari bai. "Mandoak ere txixa ibaiari". Oihenart-ek: "Mandoak osinari (ur emaiten gernu egitean)" (643).
- 2343 *Esker mille! bear zeralarik, zato nere bille.*
Ori esaten da zerbait on egin zaigunean esker ona erakusteko; baña baita zerbait guk eskatu eta eman ez zaigunean ere, txantxetan.
- 2344 *Etxe utsa, gerra utsa.*
Olatsu esaten da beste leku askotan ere. Oihenart-ek: "Etxe hutsa, aharra hutsa" (171).
- 2345 *Ez auts eta ez iketz (ikatz).*
"Ez ur ta ez ardo".
- 2346 *Ez da ori zangotik eror(i)ko.*
Uste duten baño biziago da ori.
- 2347 *Gauza guziek uzten tu (ditu) zuputz.*
Azpikoz gora uzten ditu.
- 2348 *Goiz gorri, ar(ra)tsian iturri berri.*
"Goiz gorri, arrats euri". Oihenart-ek: "Goiz gorriak dakarte uri, arrats gorriak eguraldi" (199).
- 2349 *Yostatzeke bertzerik yaiioak ez zirelakoan, xuriz yaunzten ziren.*
- 2350 *Juan-tzar batendako, Mari-tzar bat ez da faltako.*

- 2351 *Lemixiko (lenbiziko) aurtasuna eder, bigarna kiretsa.*
Aur jaiotzen gera, eta zartzaroan aur biurtzen; ortik esaera.
- 2352 *Lurrek ekarri, lurrek xan (jan).*
Zizak eta onttoak bai, ez ordea kristaua. Onek, gorputzaz gaiñera, badu arima il-eziña; eta gorputza bera ere, il ta lurpean sarturik, ez da bein betiko ondatzen, noizpait berriz piztu ta betiko bizi bearra da.
- 2353 *Murruxketuko aut!*
Apurtuko aut.
- 2354 *Mutiko putiko, axola gutiko.*
Umeak berez jostaketaz beste axolik ez.
- 2355 *Sasian yaio ta sasian il.*
Baserritar asko, deusen buruzpiderik gabe, zozoen antzera bizi ta iltzen ziren; olakoetaz da esaera ori.
- 2356 *Tutulue dantzatuko dik orrek!*
Ez dio edozeiñek irririk egingo.
- 2357 *Urrungo eltziak urrez: allegatu ta lurrez.*
Beste asko lekutan ere olatsu.
- 2358 *Kattalin, Katallin:*
ollo xuriak erron din
beltxak ere mokoan din.
Arrek ez badu erroiten,
ire bizkarrak pagaturen din.